

## **Erakunde, Herrizaingo eta Justizia batzordeko mahaiari**

**Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek**, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, Herrizaingo sailburu Rodolfo Aresen **AGERRALDI ESKARIA** egiten du, “**Getariako Herralde tabernatik kartelak kentzeari buruz**” azalpenak eman ditzan, Erakunde, Herrizaingo eta Justizia batzordearen aurrean.

### **ZIOA**

Herrizaingo sailaren aginduz, joan zen asteartean, urriaren 12an, Getariako Herralde tabernatik hainbat kartel erretiratu zituen Ertzaintzak. Taberna barrura sartu eta hiru kartel kendu zituzten, bestelako azalpenik eman gabe. Horren aurrean, ezinbesteko deritzogu Herrizaingo sailburuak jardunbide horretarako erabili duen lege oinarria zen den azaltzea.

### **AGERRALDI ESKAERA:**

Hori dela eta, Erakunde, Herrizaingo eta Justizia sailburu Rodolfo Aresen **agerraldi eskaria** egiten du, azal dezala zergatik eta ze legezko oinarriekin eraman duen aurrera Ertzaintzak jarduera hori, Getariako Herralde tabernatik hainbat kartel kentzea, alegia.

### **URGENTZIAZKO ZIOA**

Adierazpen askatasuna oinarritzko eskubidea izanik, bere murrizketa dakarren Ertzaintzaren jokabideak berehalako azalpena behar duela uste dugulako.

**Gasteizen, 2010eko urriaren 13an**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**  
**Aralar taldeko legebiltzarkidea**